

Garbine Ubeda Goikoetxea

Itokinak

M

undu osoko prentsa idatziak bizi duen estualdiari ipini diote arreta aspaldion kazetariak, zutabegileak, irrati tertulietako solaskideak. Azken urteotako irakurleen urritzea hartu dugu, beraz, hizpide; doako medioek eta bereziki Internetez eskaintzen diren zerbitzuek sektorean sortu duten kili-koloa; publizitatea murrizteak enpresa argitaratzaileei eragin dien desoreka; hitzetik hortzera darabilgun krisi ekonomiko honi esker areagotutako ondoeza.

Konponbide onik ez duenari begiratu ohi zaion bezala erreparatzen diogu egoerari, etsiak hartuta, une historiko ekidinezin bati kristalaren atzetik behatzen dioten lekukoen antzean. Kinielak egiten ditugu ataka hertsia horretatik pasatzea zein mediok lortuko ote duen asmatu nahian.

Kinka larrian, alabaina, informazio orokorra eskaintzen duen idatzizko formatu tradizionala dago, ez prentsa idatzia bera. Esan nahi baita, aktualitateari papera inprimatu eta banatzeak dakarren atzerapenez helitzen dioten argitalpenak ari dira balantzaka, nagusiki egunkariak eta bereziki aste-kari klasikoak.

Gainerako aldizkariak, sektore edo alor jakin bati tiraka gorputzen diren aste-kari, hamaboskari eta hila-betekariak errealitate gordin horretatik kanpo dirudite. Ugaltzearen ugaltzeaz, gaika sailkatuta paratzen zaizkigu lepo eginda dauden erakustokietan; surfa, futbola, elektronika, informatika, literatura, bidaiak, historia, ehiza eta arrantza, sukaldaritza, haurren garapena, argaltzea, zientzia, natura, musika, rocka, ekonomia, bideo-jokoak, zinema nahiz artea banderatzat hartuta plazaratzen den argitalpen mordera, mantxeta bera osorik agertzeko tokirik gabe, errenkadan gainjarrita. Eta, jakina, emakumezkoari zuzendutako aldizkari



DANI BLANCO

sorta, kasik publizitate katalogoaren itxura duten liburukote distiratsu eta usaintsu horiek, edo *people*-aren gaineko berriketa besterik ez dutenak. Ehunka, gazteleraz nahiz frantsesez.

Jauzi koalitatiboa ere emana dute berriki. Saltoki berezituetatik askeago, hipermerkatuetan ere eskaintzen dira orain. Txorizoen eta pixoihalen antzean, euren zona eta apalategi propioaren jabe egin dira konturatzerako. Kioskoko saltzailearen arreta mehatxagarririk gabe, jendeak hartu egiten ditu, eskuetan ibili eta gozatu, bertan irakurri, begiz jotakoa erosi.

Eta hementxe gaude gu, instituzional ez diren euskal medioetako langile, jarraitzaile eta kolaboratzaile koitaduok, herri loturetatik eta notizia lokaletatik gaindi diharduten aldizkari ikusezinok, ARGIA, *Elbuiar* eta gainerakoak, geure ezintasunetan harrapatuta, harpidetza bidezko sistema zaharkituari soluzio paralelo bideragarriak aurkitu ezinik, eta kaleko presentziarik gabe, saltoki garrantzitsuetatik urrun baino urrunago, Internetez hobeto eta merkeago hedatuko garen susmoz, noizbait eta nolabait, medio horrek duintasun ekonomikoa ere emango digun esperantzan.

Eta hipermerkatuak harira ekarrita, erregu desesperatu bat bereziki 40 urte bete berri dituen Eroskiri. Kendu, otoi, isildu ere egin gabe jartzen duzuen musika gogaikarri hori. Bestela ere, nahikoa lan izaten dugu orga gidatzen, haurrak ondoan mantentzen. Gustatu edo ez, espainierazko *hit paradea* hasieratik bukaerara entzutera behartzen gaituzue, produkzio komertzial osoa gordin-gordin jatera, gugandik hain hurbil zaudetela diozuen arren. Ez dazue euskarazko musika jartzen, libururik promozionatzen, kultura sustatzen ezta deskuidoan ere. Karteldegia euskaraz ere ipintzea ez da nahikoa. ■

Hipermerkatuak harira ekarrita,
erregu desesperatu bat bereziki 40 urte
bete berri dituen Eroskiri. Kendu, otoi,
isildu ere egin gabe jartzen duzuen musika
gogaikarri hori. Bestela ere, nahikoa
lan izaten dugu orga gidatzen,
haurrak ondoan mantentzen